



**AKTEA**  
**BERMEOKO UDALEKO OSOKO BILKURA**  
(2024-09-26/09)

<b>Bilkuraren izaera:</b>	Ohikoa
<b>Deialdia:</b>	1. deialdia
<b>Data:</b>	2024-09-26
<b>Lekua:</b>	Irakaskintza kalea 14-16 (Udaletxearen egoitza)
<b>Hasiera-ordua:</b>	09:00
<b>Amaiera-ordua:</b>	09:36

**Bertaratuak**

**Alkate-Presidentea:** Nadia Nemeh Shomaly (EH BILDU)

**Zinegotziak:**

Zigor Uriondo Arrue (EH BILDU)	Idoia Platas Arenaza (EAJ-PNV)
Endika Etxebarria Telleria (EH BILDU)	Alazne Zumeta Garro (EAJ-PNV)
Arantza Ormaza Tarantino (EH BILDU)	Ainhoa Jayo Madariaga (EAJ-PNV)
Victor Uriarte Anasagasti (EH BILDU)	Ibon Legarreta Erkiaga (EAJ-PNV)
Xabier Ortuzar Butron (GUZAN)	Jose Luis Arruza Alboniga-Mayor (EAJ-PNV)
Miren Karmele Gabantxo Uriagereka (GUZAN)	
Iker Bilbao San Nicolas (GUZAN)	
Maite Caruezo Ugalde (GUZAN)	



**Bertaratu ez direnak:**

Aritz Abaroa Cantuariense (EAJ-PNV)

Kepa Zumeta Garro (EAJ-PNV)



Ixone Soroa Güenaga (EAJ-PNV)

**Kontuhartzailea:** Edurne Urrutia Uriarte

**Idazkaria:** Jurdana Uriarte Lejarraga

**Aztergaiak**

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onartzea: 2024-07-18 OB (08)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko oinarri espezifikoaren aldaketa onartzea.
- 4.- Bermeoko udaleko batzordeetako aktak bideo-akta sistema bidez egitea onartzea.
- 5.- Bake Epailea eta ordezkoa izendatzeko prozedura hutsik deklaratzeko eta deialdi barria egitea onartzea.
- 6.- 2024ko 2. hiruhileko hornitzaileei ordainketen inguruko txostenaren berri ematea.
- 7.- 2024ko 2. hiruhileko morositate datuen berri ematea.
- 8.- 2024ko 2. hiruhileko fakturei buruzko txostenaren berri ematea.
- 9.- 2024ko 4018-5069 zenbakidun alkatetza dekretuen berri ematea.
- 10.- Tokiko Gobernu Batzarreko erabakien berri ematea: 2024ko uztailaren 16 eta 30eko erabakiak.
- 11.- Eskari eta itaunak.

	Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E80010E27C00T8V5H6P7J8K7	<b>Sinadurea eta data</b> JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 30/09/2024 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/09/2024	DOCUMENTO: 20241106556 Data: 30/09/2024 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia
			

Presidenteak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkura hasi du eta deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaidza honakoa izan da:

### 1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA: 2024-06-27 OB (07)

Batzarkideek 2024ko ekainaren 27ko 07/2024 akta aho batez onartzea erabaki dute.

### 2.- BATZARKIDEEK GAI ZERREDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek ez dute adierazi gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukatela.

### 3.- BERMEOKO KIROL TALDEEN JARDUERA ARRUNTA FINANTZATZEKO OINARRI ESPEZIFIKOEN ALDAKETA ONARTZEA.

#### Xedea

Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko oinarri espezifikoaren aldaketa onartzea.

#### Aurrekariak

Lehenengoa: 2022ko abenduaren 19an Udal Osoko Bilkurak, 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen, Erabaki horren iragarkia 2023ko martxoaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan.

Bigarrena: Dirulaguntzen Plan Estrategiko horretan oinarrituta, Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko oinarri espezifikoak prestatu ziren.

Hirugarrena: 2024ko martxoaren 21eko Osoko Bilkuran, Bermeoko Udaleko dirulaguntzen balorazio batzordea eratzea onartu zen.

Laugarrena: Oinarrietan akats batzuk eta hobetzekoak antzeman dira.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E80010E27C00T8V5H6P7J8K7

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
30/09/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/09/2024

DOCUMENTO: 20241106556  
Data: 30/09/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



## Argudioak

Lehenengoa: Balorazio batzordearen eraketa zuzendu beharra dago eta antzemandako akatsak eta hobetzekoak ere jaso behar dira. (Gorritz agertzen dira)

Bigarrena: Oinarri Espezifikoak onartzeko ahalmenari jagokonez, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 9.2. eta 17.2. artikuluan eta Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dauzan 7/1985 Legearen 22.2d) artikulugaz bat, Osoko Bilkurari jagoko.


## Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, onartzea erabaki du:

LEHENENGOA: Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko diru laguntzen oinarri espezifikoen aldaketa onartzea.

BIGARRENA: Erantsitako Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko urteko diru-laguntzen oinarri espezifikoak onartzea.

HIRUGARRENA: Oinarriak Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzeko agindua emotea Kirol Sailari.

	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E80010E27C00T8V5H6P7J8K7</p>	<p style="text-align: center;"><b>Sinadurea eta data</b></p> <p style="text-align: center;">JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 30/09/2024 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/09/2024</p>	<p>DOCUMENTO: 20241106556</p> <p>Datea: 30/09/2024</p> <p>Lekua: Bermeon</p> <p>Erregistro unidatea: Erregistro nagusia</p>
--	--	---	---



**BERMEOKO KIROL TALDEEN JARDUERA ARRUNTA FINANTZATZEKO URTEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK ESPARRUA: KIROLA**

IN-E 180/05-21

<b>UDAL SAILA:</b>	<b>KIROL SAILA</b>
<b>INSTRUKTOREA:</b>	Kirol Saileko zuzendaria
<b>BALORAZIO BATZORDEA</b>	<input checked="" type="checkbox"/> EH Bildu: Endika Etxebarria Telleria jauna eta ordezkoa Bitor Uriarte Anasagasti jauna <input checked="" type="checkbox"/> EAJ: Idoia Platas Arenaza andrea eta ordezkoa Alazne Zumeta Garro andrea <input checked="" type="checkbox"/> Guzan: Xabier Ortuzar Butron jauna eta ordezkoa Maite Caruezo Ugalde andrea <input checked="" type="checkbox"/> Idazkaria: dirulaguntza lerro bakoitzaren instruktorea
<b>DIRULAGUNTZA EBATZIKO DUEN ORGANOA:</b>	Tokiko Gobernu Batzarra
<b>EBAZPENA JAKINARAZTEKO EPEA:</b>	Ebazteko eta jakinarazteko 60 egun egongo dira, deialdian eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
<b>DIRULAGUNTZAREN LERROA:</b>	Kirol taldeen jarduera arrunta bultzatzea
<b>KODEA:</b>	
<b>AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU KOPURUA:</b>	Urteko aurrekontuan jasotako kopuruaren arabera
<b>HELBURUAK:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herri osorako jarduera arruntetik haratago antolatzen diran jolas izaerako kirol jarduera berezien eta/edo noizean behingo jardueren antolaketa sustatzea, laguntza ezberdina edota gehigarria eskatzen dabenak.</li> <li>• Herritarren aukerak kirola praktikatzeko areagotu.</li> <li>• Ohiko kirola sustatu herritarren osasuna areagotzeko eta gizarte harremanak eta bizi-kalitatea hobetzeko.</li> <li>• Kirol praktika federatuari bultzakada emon bere emaitzak eta</li> </ul>



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E80010E27C00T8V5H6P7J8K7

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
30/09/2024

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/09/2024

DOCUMENTO: 20241106556

Datea: 30/09/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaada:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E80010E27C00T8V5H6P7J8K7



	<p>antolaketa optimizatzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Herriaren izenaren zabalkundearen eragina daukien kirol-ekimenak sustatzea.</li> </ul>
<b>EPEAK:</b>	<p>Eskariak aurkezteko epeak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko diren deialdietan zehaztuko dira.</p> <p>Justifikazioak aurkezteko epeak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko diren deialdietan zehaztuko dira.</p>
<b>BALORAZIO IRIZPIDEAK:</b>	<p>1. Federatutako taldeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Lurraldeko lehiaketetan daudenengatik: 10.</li> <li>— Autonomia erkidegoko lehiaketetan daudenengatik: 20.</li> <li>— Estatuko lehiaketetan daudenengatik: 30.</li> </ul> <p>2. Bermeon helbidea duen federatutako kirolari bakoitzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Banakako kirolean: 02.</li> <li>- Taldeko kirolean: 01.</li> </ul> <p>Euskadiko selekzioan dagoen kirolari bakoitzeko: 01.</p> <p>Euskadikoaren gainetik dagoen selekzioaren baten dagoen kirolari bakoitzeko: 02.</p> <p>3. Entrenatzaileko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erdi mailako hasiera zikloko teknikaria edo I. mailakoa: 03.</li> <li>- Erdi mailako bukaera zikloko teknikaria edo II. mailakoa: 06.</li> <li>- Goi mailako teknikaria edo III. mailakoa: 10.</li> </ul> <p>4. Herritar guztien parte hartze aktiborako eta Bermeoko Udalaren diru-laguntza gabeko kirol jardueren antolatze bakoitzagatik: 2.</p> <p>5. Ikastetxeekin eskola-kirola bultzatzeko lankidetzako jardueren bakoitzagatik: 2.</p> <p>6. Kirol jarduerak sustatzeko Bermeoko Udalaren lankidetzan arituta antolatutako kirol jardueren bakoitzagatik: 2.</p>



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E80010E27C00T8V5H6P7J8K7

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
30/09/2024

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/09/2024

DOCUMENTO: 20241106556

Data: 30/09/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



	<p>7. Areneko udal kiroldegia derrigor erabili behar duten klub bakoitzeko federatuen %25 puntuatuko dira.</p> <p>- Talde berriek lehen urtean 300 euroko diru-laguntza zuzena jasoko dute,</p> <p>euren jarduerari aurre egiteko.</p> <p>Puntuak gehienez 60 euroko balioa izango du.</p>
<p><b>HIZKUNTZA IRIZPIDEAK</b></p>	<p>Diruz lagunduko diren elkarteen eta udalaren arteko ahozko eta idatzizko harremanak, ahal den kasu guztietan, euskaraz bideratuko dira.</p> <p>Diruz lagunduko diren ekimenen edo ekintzen ondorioz egingo diren idatzi, ohar, kartel eta gainerakoak, gutxienez, euskaraz egingo dira beti euskarari lehentasuna emanez.</p> <p>Publizitatea, bai ahozkoa, zein idatzizkoa, gutxienez, euskaraz egingo da beti lehentasuna euskarari emanez.</p> <p>Diruz lagundutako kirol eta kultura elkarteek antolatuko dituzten eskola, tailer, entrenamendu, saio eta abarrak euskaraz izango dira, eta arreta berezia jarriko zaie ume eta gazteei zuzendutakoei. Kasuren batean, monitorearen gaitasun ezagatik ezinezkoa balitz euskaraz bideratzea, gutxienezko komunikazioa euskaraz izatea bermatuko da (agurrak, esaldi solteak...).</p> <p>Diruz lagundutako kirol eta kultura elkarteek euren jarduna bideratzeko monitorerik kontratatu behar badute, kontratatzeke baldintzen artean monitore jarduna euskaraz normaltasun osoz bideratzeko hizkuntza gaitasuna duten giza baliabideak kontratatzea hobetsiko dute. Euskaraz jarduteko gaitasun nahikoa duten giza baliabideak bilatzeko lan aktiboa egingo da.</p> <p>Elkarteek euren jardura arruntak bideratzeko (eskolak, tailerrak, entrenamenduak, saioak, ikastaroak...), erabiltzaileei edo herritarrei zuzenduta egingo dituzten ekintza guztietan, posible den heinean, bermatuko da euskararen presentzia bai ahoz, zein idatziz (batzarrak, ate irekiak saioak, ekitaldiak...). Egunerokotasunean erabiltzaileei informazioa helarazteko edo herritarrei zuzenduta erabiltzen dituzten informazio kanaletan ere euskara erabiliko da posible den kasu guztietan (whatsapp taldeak, posta elektronikoak, sare sozialak...).</p> <p>Hitzaldiak, jaialdiak, lehiaketak, kanpainak, eta abar, euskaraz egingo dira posible diren kasu guztietan.</p> <p>Diruz lagunduko diren ekintzetan, bozgorailu bidez ematen diren</p>



mezuak, lehendabizi, euskaraz izango dira.

Hitzaldietan, ahal den guztietan, hizlariak euskaldunak izateko ahalegin berezia egingo da. Hizlari euskaldunik ez balego, aurkezpena eta jorratuko den gaiaren laburpena euskaraz egingo dira.

Hitzaldiez aparteko ekintzetan, aurkezle lanetan ere, euskarari lehentasuna emango zaio. Ekintza amaitu ostean, elkarrizketa sortuko balitz, euskaraz izan dezan ahalbidetzeko itzulpen lanak egitea hobetsiko da posible den kasuetan.

Diruz lagunduko diren ekintzetan euskal musika jarriko da, bai jarduera orokorretan (eskolak, entrenamentuak...), zein berezietan (lehiaketetan, jaietan...) edota jaietan, zein merkataritza eta/edo ostalaritza dinamizatzeko ekintzetan, eta euskal kulturarekin, eta euskal identitate eta izaerarekin lotutako ekimenak bideratzeko ahalegina egingo da.

Euskararen kalitatea bermatu beharko da aipatutako ahozko eta idatzizko ekintza guztietan. Horretarako, ekintzaren sustatzaileak beharrezko ikusiko balu (ere), ekintzak publizitzeko jendaurrean jarriko diren euskarriak Euskera Sailera bideratu ahalko dira honek hizkuntza kalitatea bermatzeko helburuarekin, gainbegiratze eta laguntza lana egin dezan.

Taldeek izan dezaketen zalantzak argitzeko, eta, jendaurreko ekintza idatzietan kalitatea bermatzeko, udaleko Euskera Sailari laguntza eskatzea gomendatzen da.

Gomendatzen da baita ere, Bikain Kalitate ziurtagiria edo Bai Euskarari ziurtagiria lortzeko pausuak ematen hastea diru laguntzaren onuraduna. Oharra: Publizitate edo zabalpen lana egiteko, euskara ez eze, beste hizkuntzaren bat erabili behar denean, euskarari lehentasun osoa emango zaio.

\* Hizkuntza irizpideak azaltzeko, «elkarte» terminoa erabili da, baina irizpide hauek dirulaguntzen onuradun guztiek bete beharrekoak dira, dirulaguntza hartuko duten pertsona fisiko eta juridiko pribatu guztiek betetzekoak, hain zuzen ere.

#### ESKATZAILEAK:

**ESPEZIFIKAZIOAK:** Jarduera ekonomikoa garatzen edota garatzen ez

duten pertsona juridikoak. Helbide soziala eta bere ohiko kirol jarduera

Bermeon garatu behar dute. Euren jardueran %30etik gorako autofinantzaketa izan beharko dute.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E80010E27C00T8V5H6P7J8K7

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
30/09/2024

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/09/2024

DOCUMENTO: 20241106556

Data: 30/09/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia





	<b>BAZTERTZEAK:</b> Diru-laguntza eskatzen duten kirol taldeetako jokalariei batek ere ezin izango du dirurik kobratu kirola egitearren.
<b>DIRUZ LAGUNDUKO DIREN KONTZEPTUAK:</b>	<p>Arlo honetan diru-laguntzak jaso ditzaketen kontzeptuak dira: formazioa,</p> <p>baliabide materialen hornikuntza eta giza baliabideak, aholkularitza bulegoak, aseguruak, federazioen kuotak, beharrezkoak diren kudeaketa gastuak, ohiko kirol jarduerekin zerikusia daukaten garraioak, eta ohiko jardueren gastuak, hau da, aurrekontu txikia daukatenak, urteko egutegian egiten diranak, gastuak ohiko aurrekontuan daudenak, e.a. Oro har, jarduera berezi moduan identifikatuta ez daudenak.</p> <p>Ez dira finantzatuko honako gastu hauek: luxuzko gastuak (primak, opariak), kirolariei ordainketak, protokoloarekin lotutako ostalaritza eta ostatu gastuak, banku-interesak, administrazio-zigorak, merkatuko balioa baino altuagoa duten gastuak...</p>
<b>PROZEDURA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:</b>	<p>Diru-laguntza emateko prozedura: Konkurrentzia lehiakorra.</p> <p>Aurkeztu beharreko dokumentuak, (eranskinak euskaraz):</p> <p><b>Eskarirako:</b></p> <p>a) Udal diru-laguntza eskatzeko orri normalizatua behar bezala beteta (IN-G 241)</p> <p>b) IFKren kopia eta kirol taldearen estatutuak aurreko urteetan ez badira aurkeztu.</p> <p>c) Ogasun Sailaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiria esanez egunean daudela betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzaren (azken hau Bermeoko Udalariei baimena emanaz gero udalaren ziurtagiriarekin luke).</p> <p>d) Dirulaguntza eskatzen den denboraldirako taldeak izandako aurrekontu eta gastuen aurreikuspena (Dirulaguntzaren eskaria-aurrekontua).</p> <p><b>Justifikaziorako:</b></p> <p>e) Dirulaguntza eskatzen den denboraldian eginiko jarduera txostena edo memoria (IN-G 244): eginiko jardueren txostena, bertan deskribatu beharko dira egindako jarduerak, zabalkunderako hartutako neurriak, jarritako helburuak eta eskuratutako emaitzak eta helburuen lorpen maila. Txostenaren gehienezko luzera 4 orrikoa izango da.</p>



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E80010E27C00T8V5H6P7J8K7

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
30/09/2024

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/09/2024

DOCUMENTO: 20241106556

Data: 30/09/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E80010E27C00T8V5H6P7J8K7



Talde-kiroletako taldeek zenbat talde eta zein mailatan lehiatu diren espezifikatu beharko dute. Atal honetan zehaztu beharko da euskararen erabilera kirol jardueretan (entrenamenduak, publizitatea...)

f) Kontu garbiketaren aitorpena (IN-G 245) eta Diru-sarreraren eta gastuen zerrenda (IN-G 243). Puntu honekin batera fakturak erantsiko dira, dagokion ordainketa ordainagiriarekin.

g) Taldeko kirolari federatuen zerrenda, denboraldian zehar 14 urte betetzen dituztenak barne. Zerrenda hau federazioak sinatutako orrian agertu beharko da eta honako datu hauek egon beharko dira: jaiotze data, helbidea duen herria eta parte hartu duen lehiaketak edo kirolari bakoitzaren fitxaren kopia eta parte hartu duen lehiaketako aktaren kopia bat, baina beti eskatzen diren datuak islatuz (jaiotze data eta bizi den herria).

h) Dirulaguntza eskatzen den denboraldian talde federatuekin aktiboki dauden entrenatzaileen zerrenda eta beraien titulazioa. Titulazio ofizial originala aurkeztu beharko da.

j) Dirulaguntza eskatzen den denboraldian egindako jarduerak edota herri ekimenak Udalaren intereseko arloak bultzatzeko: hizkuntza, generoa, ingurumena, ekimen solidarioak, eskola-kirola bultzatzeko lankidetzak, herrian kirola bultzatzeko eginiko ekintzak bere kabuz edota Udalaren laguntzarekin (IN-E 161).

Puntu honetan erabilitako publizitatearen kopiak erantsi behar dira: programak, kartelak, argazkiak, kamisetak, etab. Euskarri hauetan guztietan Bermeoko Udalaren logoa agertu beharko da.

### Akatsak zuzentzeko epea

Diru-laguntza eskarian ez badira eskatutako agiri guztiak aurkezten, interesdunak 10 egun izango ditu akatsak zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen denetik kontatzen hasita. Denbora tarte horretan ez badira zuzentzen, eskariari uko egiten zaiola ulertuko da.

### Diru-laguntzak emateko prozedura

Diru-laguntzak prorrata sistemaren bidez emango dira, puntuazioaren arabera, aurrekontuko dotazio osoa banatuta.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, gehienez ere, aurrekontuaren %70ra artekoa izango da

Aurkeztutako proposamenek gutxienez, 10 puntu lortu beharko dituzte dirulaguntzaren bat jasotzeko.



Puntuak gehienez 60 euroko balioa izango du. Emango den gehiengo kopurua : 5.000 €

Dirulaguntza hau bateragarria da beste dirulaguntza batzuekin.

### Diru-laguntzak ordaintzea

Bermeoko Udalak ordainketa egiteko, aurreko denboraldi edota urteko balantzea aurkeztuko beharko da dagokion justifikazioarekin. Diru-laguntza ondo justifikatzeko, balantzean (kitapenean) agertzen den aurrekontuaren %100a faturekin justifikatu behar da.

Desadostasunik balego, Balorazio Batzordeak aztertuko luke.

### Diru-laguntzaren onuradunen betebeharrak

1. Bermeon, paneletan ezin dira 35 kartel baino gehiago jarri. Hormetan ere, ezin izango da kartelik jarri.
2. Jasotzaileak bere ohiko kirol jarduera zabaltzeko egiten duen publizitatean (iragarkiak, ekipajeak, kartelak, webgunea,...) Bermeoko Udalaren logoa agertu beharko da.
3. Ezingo dira zorrik izan Bermeoko Udalarekin.

### Diru-laguntzaren justifikazioa.

1. Diru-laguntzaren onuradunak denboraldiko diru-laguntzaren justifikazioa egin beharko du udal eranskinen arabera, egoitza elektronikoa, Bermeoko Udaleko dirulaguntzen oinarri orokorren 17. artikuluan jasotzen den moduan, eskaria aurkezteko dagoen epe berean.
2. Ebaluazio-memoria eranskineko edukiaren arabera egingo da: egindako ekintzen garapena, parte-hartzaileak, balorazioa eta balantze ekonomiko osoa jasota.
3. Erabilitako publizitatea aurkeztu beharko da, aurretik ez bada aurkeztu.

### Akatsak zuzentzeko epea

Justifikazioan ez baditu eskatutako agiri guztiak aurkezten, interesdunak 10 egun edukiko ditu akatsak zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen denetik kontaktzen hasita.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E80010E27C00T8V5H6P7J8K7

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
30/09/2024

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/09/2024

DOCUMENTO: 20241106556

Fecha: 30/09/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaada:  
Erregistro nagusia



<b>AURREIKUSITAKO KOSTUAK PROGRAMA HONETAN</b>	Urteko aurrekontuan jasotako kopuruaren arabera.
<b>JARRAIPEN ETA EBALUAKETARAKO ADIERAZLEAK:</b>	Diru-laguntza hau jasotzen dutenetatik gutxienez %70ak talde mistoak izatea edo emakumeenak. Diru-laguntza hau jasotzen dutenek kirolarekin lotutako herri ekimenetan urtero parte hartzeren bat izatea (hizkuntzarekin, generoarekin, ekimen solidarioekin, ingurumenarekin, ... zerikusia dutenak).
<b>ERLAZIONATUTAKO AGIRIAK:</b>	Eskaera egiteko eranskinak: IN-G 241, aurrekontuaren eranskina (excel) Justifikazioa egiteko eranskinak: IN-G 243, IN-G 244, IN-G 245 IN-E 161
<b>GENERO ERAGINA</b>	Bat ere ez.
<b>1/1982 LOaren arabera argitagarria ez den emakida BAI/EZ</b>	Maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzkoa. Ez.

#### 4.- BERMEOKO UDALEKO BATZORDEETAKO AKTAK BIDEO-AKTA SISTEMA BIDEZ EGITEA ONARTZEA.

##### Xedea

Bermeoko Udaleko kide anitzeko organoetako aktak bideo-akta sistema bidez egitea onartzea.

##### Aurrekariak

Bakarra: Bermeoko Udalaren funtzionamenduan eraginkortasun eta eragingarritasuna sustatzeko helburuekin bat, eta gardentasuna eta modernizazioa bermatzeko helburuekin uztartuta, udal batzordeetako aktak, bideo-akta sistema bidez egiteko azpiegiturak eskuratu dira.

##### Argudioak



Lehenengoa: Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Orokorra arautzen duen 39/2015 Legearen 26. artikulua, agiri elektronikoak ahalbidetzen ditu eta, egintza administratiboen forma elektronikoa izan behar dela dio lege bereko 27. artikulua

Era berean, Sektore Publikoko Erregimen Juridikoa arautzen duen 40/2015 Legearen 3. artikuluan, Administrazio Publikoen printzipio orokorrak arautzen dira eta, ezarri nahi den aktak egiteko sistema berriak, printzipio horiek betetzea errazten du.

Gainera, Lege bereko 18. artikulua, espresuki onartzen ditu grabatutako aktak, toki erakundeetakoak ez diren bestelako organo kolegiatuen aktak altxatzeko.

Bigarrena: Udaleko organo kolegiatuei zuzenean dagokienez, Toki Entitateen Antolaketa, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 2568/1986 Errege Dekretuaren 109. artikuluan, akten altxatzea nola egin arautzen da. Beraz, bideo-akten sistemak artikulua horretan araututakoa bermatzen duen heinean, batzordeetako aktak sistema horren bidez egitea onartu daiteke.

Hirugarrena: Bestalde, kontuan izanda bideo-aktetan parte hartzaileen datu pertsonalak eta parte hartzaileen irudia jasotzen dela, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoak arautzen duenarekin bat, beharrezkoa ikusten da datu pertsonalak eta irudia bideo-akten sisteman bidez jasotzea espresuki onartzea.

Laugarrena: Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluaaren parekidetasunagatik, erabakia hartzeko ahalmena Osoko Bilkurari dagokio.

## Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, onartzea erabaki du:

LEHENENGOA: Bermeoko Udaleko kide anitzeko organoetako aktak bideo-akta sistema bidez egitea onartzea.

BIGARRENA: Bermeoko Udaleko kide anitzeko organoetako parte hartzaileen datu pertsonalak eta parte hartzaileen irudia eta ahotsa bideo-akten bidez jasotzea eta tratatzea onartzea.



HIRUGARRENA: Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Bermeoko Udaleko gardentasun atarian argitaratzeko agindua ematea Idazkaritza Sailari.

## 5.- BAKE EPAILEA ETA ORDEZKOA IZENDATZEKO PROZEDURA HUTSIK DEKLARATZEA ETA DEIALDI BARRIA EGITEA ONARTZEA.

### Xedea

Bake Epailea eta ordezkoa izendatzeko prozedura hutsik deklaratzeko eta deialdi barria egitea.

### Aurrekariak

Lehenengoa: EAEko Auzitegi Nagusiak, 2024ko martxoaren 27an, Bake Epaile lege izendatutako persona kargutik kentzearen ebazpena eta, ondorioz bake epaile barria eta ordezkoa izendatzeko eskaria bialdu eban. Hori dala eta, prozesuari hasiera emoteko oinarriak prestatu ziran.

Bigarrena: 2024ko maiatzaren 30eko Osoko Bilkurean, oinarriak eta deialdia zabaltzea onartu zan.

Hirugarrena: Deialdia 2023ko ekainaren 13ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan, eta eskariak aurkezteko epean, ez da ezelako eskaririk aurkeztu.

### Argudioak

Lehenengoa: Botere Judizialeko Lege Organikoko 101. artikulua eta hurrengoek xedatzen dabena jarraitu da eta, izendapena egiteko proposamena Osoko Bilkureari jagoko. Baina ez danez ezelako eskaririk jaso, prozesua hutsik deklaratu behar da eta deialdi barria egin beharra dago.

Bigarrena: Aipatutako Legearen arabera, erabagia hartzea Osoko Bilkureari jagoko eta, eskatzen dan gehiengoa, gehiengo osoa da.

### Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, onartzea erabaki du:



LEHENENGOA: Bake Epailea eta ordezkoa izendatzeko prozedura hutsik deklaratzeko eta, onartutako oinarrien arabera, deialdi barria egitea.

BIGARRENA: Bizkaiko Aldizkari Ofizilean jagokon iragarkia bidaltzeko agindua emotea Idazkaritza Sailari.

HIRUGARRENA: EAeko Auzitegi Nagusiari erabagiaren barri emotea, jakitun egon daien.

## 6.- 2024KO 2. HIRUHILEKO HORNITZAILEEI ORDAINKETEN INGURUKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA.

*"Xedea*

*Finantza likidezia sortzea.*

**Aurrekariak**

Bakarra:

- *Abenduaren 22ko Errege Dekretu 1040/2017koa, uztailaren 25eko Errege Dekretua 635/2014.aldatzen duena.*

**Argudioak**

Lehena:

- *2017ko Errege Dekretuaren mamia hornitzaileen gehienezko ordainketa epea kalkulatzeko metodologiarena da. Aipatzekoa da, ordaintzeko gehienezko epea (60 egun) 2004/03 Legean erregulatu gelditu zena ez duena aldatzen.*

Bigarrena:

*.- Aldakuntza garrantzitsuenetarikoa hornitzaileen gehienezko ordainketa epean sortu da. Ordainketa egunen edo ordaintzeko gelditzen diren egunen kalkulua erregistro fakturen anotazio egunetik hasita kontatuko da (egun naturalak).*

*.- Onarpena eman behar denean egindako zerbitzu edo hornikuntzei, kontatzen egunek handik eta gora hasiko dira.*



“ Artículo 5: .....Se entenderá por número de días de pago, los días naturales transcurridos desde:

- a) La fecha de aprobación de las certificaciones de obra hasta la fecha de pago material por parte de la Administración.
- b) La fecha de aprobación de los documentos que acrediten la conformidad con los bienes entregados o servicios prestados, hasta la fecha de pago material por parte de la Administración.
- c) La fecha de entrada de la factura en el registro administrativo, según conste en el registro contable de facturas o sistema equivalente, hasta la fecha de pago material por parte de la Administración, en los supuestos en los que o bien no resulte de aplicación un procedimiento de aceptación o comprobación de los bienes o servicios prestados o bien la factura se reciba con posterioridad a la conformidad.

En los supuestos en los que no haya obligación de disponer de registro contable, se tomará la fecha de recepción de la factura en el correspondiente registro administrativo.”

“El número de días de pago” son los días naturales transcurridos desde la fecha de conformidad de la factura, hasta la fecha de pago material por parte de la Administración. En los supuestos en los que no exista constancia del acto de conformidad, se tomará la fecha de recepción de la factura en registro administrativo o sistema equivalente. No se considerará la factura pagada hasta el abono total de la misma. En el caso de certificaciones de obra, el cómputo se inicia desde la fecha de aprobación”.

**Hirugarrena:** Bi hiruhilabetekoetan hirurogei egunetik gora igotzen direnean ordaintzeko epeak Udalkutxako erretentzioaren hasiera espedientea hasiko da BFAtik, eta bera izango da zuzenean ordainduko duena udalaren fakturen zorra.

**Laugarrena:** Kalkulu berri hori egiten ze epetik gora derrigortzen den, Aldi Baterako Xedapen Bakarrean agertzen da:

“La primera publicación mensual del período medio de pago a proveedores realizada de conformidad con la metodología prevista en la modificación del artículo 5 del Real Decreto 635/2014, de 25 de julio, tendrá lugar en el mes de junio de 2018 referida a los datos del mes de abril de 2018.....”

Kalkulu berri honen derrigortasuna udalarentzat 2018ko bigarren hiruhilabetekoan hasi da.

**Bosgarrena:** Aurrean esandako guztia kontuan hartuta 2024ko bigarren hiruhilabeteko ratioak hauek izan dira:





ERAKUNDEA	HIRUHILEKOA	ORDAINDUTAKO ERAGIKETEN RATIOA	EGITEKO DAUDEN ORDAINKETARAKO ERAGIKETEN RATIOA	ERAKUNDE BAKOITZAREN BATEZ BESTEKO ORDAINTZEKO EPEA	HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPE OROKORRA
Udala		13 egun	12 egun	13 egun	
Beruala S.A.	2.goa	4,71 egun	41,13 egun	45,84 egun	13,32 egun

**Seigarrena:**

- *Udalak derrigortuta dagoz ratio horiei publizitatea ematera:*

*“Las Entidades Locales publicarán periódicamente, a través de sus portales web, la siguiente información:*

- Período medio de pago global a proveedores.*
- Período medio de pago de cada entidad*
- Ratio de operaciones pagadas de cada entidad*
- Ratio de operaciones pendientes de pago de cada entidad*

*Publicación trimestral y se publicará la serie histórica anual”*

**Proposamena:**

*Goian aipatutako guztia kontuan hartuta honako hau proposatzen dut:*

***BAKARRA:*** *Osoko Bilkurari informaziorako bidaltzea, eta goian agertzen den taula web orrian argitaratzea.”*

**7.- 2024KO 2. HIRUHILEKO MOROSITATE DATUEN BERRI EMATEA.**

***“Gaia:*** *2024ko bigarren hiruhilekoko txostena, Berankortasun Legean aurreikusita dagoena, Osoko Bilkuran barri emateko.*

*Eragiketa komertzialetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen ekainaren 12ko 5/2003 Foru Arauaren 4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako txosten hau ematen dut:*



**Aurrekariak**

Lehenengoa. *Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 198. artikulua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.*

1. *Kontratastak eskubidea izango du egindako prestazioagaitik hitzartutako prezioa ordaintzeko, lege honetan eta kontratuan ezarritakoaren arabera.*

*Esparru-akordio batean oinarritutako kontratuen eta kontratazio-sistema dinamikoko batetik eratorritako kontratu espezifikoen kasuan, eskatzaileak ordaindu ahal izango du prezioa.*

2. *Prezioa osorik edo zati batean ordain daiteke, konturako ordainketen bidez, edo, segidako traktuko kontratuen kasuan, hitzartutako epemugetako bakoitzean ordainduz.*

3. *Kontratastak, halaber, konturako ordainketak jasotzeko eskubidea izango du, kontratua gauzatzeko prestatze-eragiketen zenbatekoan, baldin eta eragiketa horiek kontratuaren xedearen barruan badaude, kasuan kasuko pleguetan adierazitako baldintzetan, eta ordainketa horiek bermea eman zezaten ziurtatu beharko dira.*

4. *Obra-ziurtagiriak edo emandako ondasunak edo zerbitzuak kontratuan xedatutakoarekin bat datozeela egiaztatzen duten agiriak onartu eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan ordaindu beharko du administrazioak prezioa, hargatik eragotzi gabe 210.artikuluko 4.paragrafoan ezarritakoa. Berandutuz gero, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio kontratistari, epe hori igaro eta hogeita hamar eguneko epean, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako moduan. Interesak sortzeko epea zenbatzen hasteko, kontratastak faktura dagokion administrazio-erregistroan aurkezteko betebeharra bete beharko du, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan, hogeita hamar eguneko epean, salgaiak benetan entregatzen direnetik edo zerbitzua ematen denetik zenbatzen hasita.*

*210.artikuluko 4.paragrafoan eta 243.artikuluko 1.paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe, emandako ondasunen edo emandako zerbitzuen obra-ziurtagiriak edo kontratuan*



xedatutakoarekin bat datozela egiaztatzen duten agiriak onartu beharko ditu administrazioak, ondasunak entregatu edo zerbitzua eman eta hurrengo hogeita hamar eguneko epean.

Nolanahi ere, kontratistak ez badu betetzen faktura dagokion administrazio-erregistroan aurkezteko hogeita hamar eguneko epea, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, interesen sortzapena ez da hasiko harik eta faktura behar bezala aurkezten denetik hogeita hamar egun igaro arte, eta Administrazioak ez badu, hala badagokio, adostasuna onartu eta dagokion ordainketa egin.

5. Ordainketak lau hilabete baino gehiago berandutuz gero, kontratistak, hala badagokio, kontratua betetzea eten ahal izango du, eta gorabehera horren berri eman beharko dio Administrazioari, hilabete bat lehenago, etenaldi horretatik erator daitezkeen eskubideak aitor ditzan.

6. Administrazioa sei hilabetetik gora berandutzen bada, kontratistak eskubidea izango du, halaber, kontratua suntsiarazteko eta horren ondorioz sortutako kalteak ordaintzeko.

7. Zerga-arauetan eta Gizarte Segurantzarenean ezarritakoari kalterik egin gabe, kontratua gauzatzeagatik egin beharreko konturako ordainketak honako kasu hauetan bakarrik enbargatu ahal izango dira:

a) Kontratistaren langileek kontratua gauzatzean sortutako soldatak eta horien ondoriozko gizarte-kuotak ordaintzeko.

b) Kontratistak azpikontratistekin eta hornitzaileekin kontratua gauzateari buruz hartutako betebeharrak ordaintzeko.

8. Beraz, 5/2013 Foru Araua, ekainaren 12koa, egonkortasunari buruzkoa eta iraunkortasun finantzarioan oinarrituz, Administrazioak, hogeita hamar eguneko epea du, ondasunak entregatu edo zerbitzuak eman eta biharamunetik kontatzen hasita, adostasuna egiaztatzen duten ziurtagiriak edo agiriak onartzeko, eta beste hogeita hamar egun ditu, onarpen-egun horretatik aurrera, prezioa berandutzerik gabe ordaintzeko. Berankortasun-txostenei dagokienez, ordaintzeke dauden batez besteko aldiaren zenbaketaren hasiera,



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E80010E27C00T8V5H6P7J8K7

## Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
30/09/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/09/2024

DOCUMENTO: 20241106556

Data: 30/09/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

ordaindutako eragiketena zein ordaintzeke daudenena, faktura jasotzen denetik zenbatzen da, oro har.

Hala, berankortasun-txostenei dagokienez, ordaintzeko batez besteko aldia zenbatzen hastea, bai ordaindutako eragiketena, bai ordaintzeke daudenena, berankortasun-araudi aplikagarriarekin bat etorri zenbatzen da.

«Faktura edo justifikazio-agiria administrazio-erregistroan sartzen denetik», ondorioz, egungo araudiaren arabera gehienekoa 60 egun izango liriteke guztira (30 egunetan banakaturik, erregistroan onartzen denetik, eta 30 egunetan, ordaintzeko onartzen edo aitortzen denetik), kasu partikularretan izan ezik, hala nola Obraren Azken Ziurtagirian (3 hilabete onartzeko eta 30 egun hura ordaintzeko) eta kontratuaren likidazioan izan ezik.

Bigarrena. 3. artikulua. 9/2017 Legearen eremu subjektiboa.

1. Lege honen ondorioetarako, honako erakunde hauek hartuko dira sektore publikoaren barruan:

a) Estatuko Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoetako administrazioak, Ceuta eta Melilla hiri autonomoak eta toki-administrazioa osatzen duten erakundeak.

b) Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileak eta zerbitzu erkideak.

c) Erakunde autonomoak, unibertsitate publikoak eta administrazio-agintaritza independenteak.

d) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta toki-araubidearen legerian aipatzen diren berezko nortasun juridikoa duten partzuergoak, bai eta aduana-legeriak araututako partzuergoak ere.

e) Fundazio publikoak. Lege honen ondorioetarako, fundazio publikotzat hartuko dira baldintza hauetakoren bat betetzen dutenak:

1. Hasieran eratzea, sektore publikoko erakunde baten edo batzuen gehiengoaren ekarpenarekin, zuzenean edo zeharka, edo eratu ondoren jasotzea ekarpen hori.

2. Fundazioaren ondarearen %50 baino gehiago sektore publikoko subjektuek modu iraunkorrean emandako edo lagatako ondasunek edo eskubideek osatzea.



3. Patronatuko boto-eskubideen gehiengoa sektore publikoko ordezkariena izatea.

f) Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuak.

Azken batean, eta merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko otsailaren 16ko 2011/7/EB Zuzentarauaren aplikazio-eremu subjektiboarekin bat etorritz, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikulua aplikazio-eremuan sartzen diren erakundeak dira, eta ondorio guztietarako, legeak botere esleitzailentzat jotzen dituen erakundeak sartzen dira.

Hirugarrena. Merkataritza-eragiketak dira eremu objetiboa. Legearen eremutik kanpo geratzen dira merkataritza-harreman batean oinarritzen ez diren eragiketak, hala nola estatutu- eta langile-harremanaren ondorio direnak edo desjabetze-ahalaren ondorio direnak.

Hartzaileak enpresa bat izan behar du, eta, beraz, kanpoan geratzen dira sektore publikoko erakundeen artean gertatzen direnak.

Hitzarmen bidez jabekideen erkidegoari egindako ordainketak eta preskripzio-espeditentia izapidetzen ari diren fakturak kanpo geratzen dira.

Beraz, toki-eremuan, honako hauei dagozkie:

Aurrekontu mugatzailearen pean dauden erakundeentzat, oro har:

- Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak
  - Inbertsioak
  - Tokiko sektore publikoko gainerako erakundeentzat:
- Hornidurak eta ustiapeneko beste gastu batzuk
  - Ibilgetu materiala eta ukiezina eskuratzea

Eragiketa horiek dagokion txosteneko merkataritza-harremanengatiko beste ordainketa batzuen atalean jaso beharko dira (egiteke edo eginda). Berankortasunaren aurka borrokatzeko legeak atzerapen-interes sortzapean automatikoa ezartzen duenez, interes horien zenbatekoa ere ezagutu beharko da.



*Berandutze-interesa laguntza osagarria da, eta subjeto arau-hausleei eskatuko zaie, kasu honetan epez kanpoko ordainketa bat egitearen ondorioz.*

Laugarrena. 5/2013 Foru Arauaren 4. artikulua 5. paragrafoak honako hau xedatzen du: “Diruzainek edo, halakorik ezean, toki-erakundeetako kontu-hartzaileek hiru hilean behin egingo dute ordaintzeko batez besteko aldiaren jarraipena, 75.000 biztanle edo gehiagoko zuzenbidezko biztanleria duten erakundeetan izan ezik; kasu horretan, aipatutako jarraipena hileroko egingo da.”

Txostena egiteko ardua duen organoa alde batera utzita, HAP/2105/2012 Aginduak 4.artikuluaren zehazten du zeintzuk diren informazioa bidaltzera behartuta dauden subjektuak: “Toki-korporazioetan, beren eginkizunak betetzen dituzten esku-hartzeak edo unitateak.”

Bosgarrena. Gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 5. Artikuluak zera zehazten du:

“1. Diruzaintzaren eginkizunak honako hauek hartzen ditu:

- a) Toki-erakundeko dagokion organoaren titulartasuna eta zuzendaritza.
- b) Toki-erakundearen funtsak, baloreak eta efektuak erabiltzea eta zaintzea, indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritakoaren arabera, eta
- c) Toki-erakunde bakoitzaren betebeharrak ordaintzeko legez aurreikusitako epeak betetzeari buruzko berankortasunari buruzko araudiak zehazten dituen txostenak egitea.”

#### **APLIKATU BEHARREKO LEGERIA**

- 5/2013 Foru Araua, ekainaren 12koa, Bizkaiko Toki Erakundeetako egonkortasuna eta iraunkortasun finantzarioa. (4. artikulua).
- 128/2018 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena. (5.artikulua)
- 9/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa, Toki Ogasunei buruzkoa.



- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, *Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.*

Hori ikusita, diruzain honek honako TXOSTEN hau egin du:

**1.- EGITEKE DAUDEN OBLIGAZIOAK JAKINARAZTEA:**

2024. BAT\_BAR\_0055 espedientean zehazten dira Bermeoko Udalak eta Beruala, S.A.-k 2024ko apiriletik ekainera arte aitortutako obligazio guztiak, epemuga-data jasota, eta ez dira kontuan hartu Jabego Elkarteei egindako ordainketak.

Fakturen zerrenda erantsi da, eta ohartarazi da:

Aurreko irizpidearen arabera, 2024ko bigarren hiruhilekoaren amaieran Berualak S.A.k 1.273,28 euro ditu ordaindu barik legezko ordainketa-epearen barruan, guztira 5 eragiketekin. Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa (ROPP) 41,13 egunekoa da.

Bermeoko Udalean berriz, ordaintzeke dauden obligazio guztien zenbatekoa 1.178,65 eurokoa da, guztira 12 eragiketa eta guztiak daude legezko ordainketa-epearen barruan. Faktura hauek aurreko urtetakoak direnez Osoko Bilkurak onartu behar ditu ordainketa burutu ahal izateko. Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa (ROPP) 12 egunekoa da.

Bestalde, bigarren hiruhilekoan ordaintzeko legezko epetik kanpo ordaindutako obligazioak 60.406,67 eurokoak dira, 19 eragiketa guztira, eta legezko ordainketa-epearen barruan ordaindutako obligazioak 2.392.689,63 euro dira, 879 eragiketa guztira. Ordaindutako eragiketen ratioa (ROP) 13 egunekoa da.

Bigarren hiruhilekoan, ekainaren 30a erreferentziatza hartuz, 7 faktura daude hiruhilabete baino gehiago betebeharra onartu barik, guztira 20.912,77 euro. Hauetatik 7.593,08 euro uztailean 4ean onartu dira eta ordainduta daude. Gainerakoa, 13.319,69 euro, fakturak ezeztatu egin dira uztailaren 16an, bikoiztuta eta zenbatekoa obra ziurtagiriarekin bat ez zetozelako.

Amaitzeko, 2024.urteko bigarren hiruhileko batzbesteko ordainketa aldia (PMP) 13 egunetakoa da.



## OHARRAK

2024.urteko lehenengo hiruhilekoarekin alderatuz, kalkulaturako ratioen emaitzetan dagoen aldea esanguratsua da. Honen arrazoia, AS400 programak kalkulua egiteko izan duen errakuntza aipatu behar da. Batzbesteko ordainketa aldia, faktura erregistratzen zen egunetik ordainketa egiten zen egunera arteko egunen aldea kontutan hartuz kalkulatzen zuen, 635/2014 Errege Dekretuan oinarrituz.

2018.urtean aldaketa bat eman zen, non 1040/2017 errege dekretuak, batzbesteko ordainketa aldia kalkulatzeko, faktura onartzen den eguna ("O" fasea) eta ordainketa materiala gauzatzen zeneko eguna kontutan hartuz kalkulatu behar dela esaten duena.

Ondorioz, 2024.urteko lehenengo hiruhileko datuak eguneratuta txertatzen ditut txosten honetan:

- Ordaindutako eragiketen ratioa (ROP): 24 egunekoa izan zen.
- Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa (ROPP): 28 egunekoa izan zen.
- Lehenengo hiruhileko batzbesteko ordainketa aldia (PMP): 26 egunetakoa izan zen.

## GOMENDIOAK

Udal Txit Gorenak fakturak legezko ordainketa-aldia bete gabe ordain ez ditzan, beharrezkoa da udal teknikari guztiak beraien departamentuari dagozkien fakturen oniritziak 30 eguneko epean emateko konpromisoa hartzea, berandutzeagatik sortu daitezkeen arazoak ekiditeko. Honek, ordaintzeke dauden betebeharren zenbatekoa murriztuko luke, diruzaintzak gehienez zazpi eguneko epean egiten baitu ordainketa materiala, betebeharra onartu eta legezko izapide guztiak bete ondoren."

## 8.- 2024KO 2. HIRUHILEKO FAKTUREI BURUZKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA.

### "Xedea

2024ko Bigarrenko Hiruhilabeteko Fakturei buruzko txostena.

### Aurrekariak





Uztailaren 5eko 15/2010 Legea Berankortasunaren kontrako neurriak hartzen duenaren aplikazioa.

### Argudioak

**Bakarra:** uztailaren 5eko 15/2010 Legea Berankortasunaren kontrako neurriak hartzen duenaren aplikazioaren 5.4 artikulua esaten du:

